

AINARA CASTELLANOS RUBIO

Genetikaria

“Science aldizkarian argitaratzeak ez dauka preziorik”

ANA GALARRAGA AIESTARAN
Elhuyar Zientzia

Ainara Castellanos Rubiok ikertzaile gutxik lortzen duten zerbait erdietsi du: bere ikerketa bat argitaratzea, non eta *Science* aldizkarian. [Gaixotasun zeliakoarekin lotutako gene zehatz bati buruzko ikerketa da](#), eta emaitzak lagungarriak izango dira gaitza hobeto ezagutzeko eta pazienteei laguntzeko.

Horretara iristeko, eta gaztea den arren, bide luzea egin du Castellanosek. Unibertsitateko ikasketak hasterako, argi zuen genetikaria izan nahi zuela: “Beti gustatu zait genetika, Mendelen ilarretatik”. Hala, Biologia ikasten hasi zen. Halako batean, fakultateko korridoreetatik zebilela, Gurutzetako ospitalean tesia egitea eskaintzen zuen kartel bat ikusi zuen. Horrek bultzatuta egin zuen tesia: “Ospitalean izatea erakargarria iruditu zitzaidan. Kartela kendu nuen, beste inork ikus ez zezan, eta elkarriketara joan nintzen. José Ramón Bilbaok egin zidan, eta egun horretan bertan maitemindu nintzen, zientifikoki”.

Hura izango zen bere tesi-zuzendaria. Bost urte eta erdi eman zituen tesia egiten, eta, jarraian, Estatu Batuetara joan zen, Columbia Unibertsitatean, doktoretza-ondokoa egitera. Han egin zuen ikerketa hori. Hilabete batzuetan, ahal ere, den-

bora gehiago eman zuen artikulua idazten eta berridazten, ikertzen baino: “Aurrena *Nature* aldizkarira aurkeztu genuen, eta atzera bota zuten. Orduan *Sciencera* bidali genuen, eta horrela ezetz, baina zuzenketak eginez gero agian argitaratu zigitela erantzun zuten. Lau berrikuspen egin behar izan nituen, onartua izateko”.

Ia urtebete eman zuen horretan, eta ez du ezkututzen horrek sortutako etsipena: “Ikertzaile batek beti nahi du aurrera egin, eta ikerketan sakondu. Baina ikertzen jarraitzeko ezinbestekoa da argitaratzea, eta zenbat eta aldizkari ospetsuagoan izan, hobeto”. Azkenean, ahaleginak merezi izan zuen: “Ezin dut azaldu zer sentitu nuen jakin nuenean *Sciencen* argitaratuko zutela. *Sciencen* argitaratzeak ez dauka preziorik”.

ZORTEA ETA LANA

Castellanosek zorte ona izan duela uste du: “Aitak esaten dit ez dela zortea, lan asko egin dudala eta horren ordaina dela. Baina lana ez da nahikoa, zortea ere behar da, eta nik izan dut”, airtortzen du, apal.

Urtarrilean etorri zen Columbiatik, eta, geroztik, irakasle aritu da unibertsitatean. Dioenez, esperientzia gogorra egin zaio: “Mikrobiologia ematen dut, eta ez da nire espezialitatea. Eta ez da erraza hogeit hamar pertsonaren aurrean jartzea eta azalpenak ematea”.

Edonola ere, laster itzuliko da ikerketara, Juan de la Cierva beka bat lortu baitu. “Horri esker, Bilbaorekin ikertuko dut berriro, EHUren genetika sailean, zeliakiaren genetikari argitzeko”, adierazi du, gogotsu. Lana badu, beraz, eta zortea ere izango ahal du! ●

Ainara Castellanos Rubio (Portugalete, 1982) Biologian lizentziatua da. José Ramón Bilbaoren zuzendaritzapean egin zuen tesia, zeliakiaren genetikaren ingurukoa, eta 2010ean irakurri zuen. Tesia egin bitartean, Finlandian izan zen lau hilabetez; hala, doktoretza europarra jaso zuen. Doktoretza-ondorengoa Columbia Unibertsitatean egin du, 2011-2016 bitartean, Sankar Ghosh doktorearen laborategian. 2016aren hasieran, Euskal Herrira itzuli da, Juan de la Cierva beka batekin.

UPV/EHU Kultura Zientifikoko Katedraren lankidetzan egindako atala.

